

# I. Euskadi Basque Country 2030 Agendaren Jarraipen Txostena

2017. urtea



## Agenda Euskadi Basque Country

# 2030



## AURKIBIDEA



### I. Euskadi Basque Country 2030 Agendaren Jarraipen Txostena 2017. urtea

# Agenda Euskadi Basque Country

# 2030

Euskadik bere egiten du Nazio Batuen 2030rako Agendaren erronka globala, Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartzearen bidez. Gure lurralderako ekintza-plan bat da, euskal eredu gisa planteatzen dena bai hazkunderako eta bai gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ongizaterako; funtsezko zerbitzuak pertsona guztiei bermatzeko konpromisoa hartzen du, eta baita kalitate handiagoko enplegu aukerak sortzen dituen hazkunde jasangarritasunaren aldeko konpromisoa ere.

I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda 2017-2020 aldian garatzen da, hau da, EAEko XI. Legegintzaldiaren Gobernu Programaren indarraldi berbera du, eta islatzen du noraino datozen bat programa hori eta beraren garapenera zuzendutako politika sektorialak Garapen Jasangarriaren 17 Helburuekin (GJH) lotutako helburu eta helmugekin, horien aldeko ekarpena islatzeaz batera. Era horretan, 2030 Agendaren espirituari erantzuten diogu, kontuan hartuta GJHak ez direla sortu zer egin behar dugun esateko, baizik eta lehenetsiak ezartzen laguntzen digun testuinguru unibertsal bat definitzeko, gure lurralde-errealitatea kontuan hartuta.

I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda agenda egokigarri gisa landu da, hau da, egokitu egin daiteke beraren jarraipen eta ebaluazioaren ondorioz. Horregatik ezarri da jarraipen txosten bat egingo dela urtean, gobernantza-tresna eta -bide propioak erabiliz, beraren bitartez jasotzeko zer ekarpen egiten dien Euskadik 2030 Agendaren GJHak lortzeko xedez mundu mailan egiten diren ahaleginei eta lanari. Halaber, txostena izango da NBERen Garapen Jasangarriaren Helburuen aurrerapenari buruzko urteko txostenari Euskadik egiten dion ekarpena.

## I. EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 AGENDAREN JARRAIPIEN TXOSTENA

### 2017 ZENBAKITAN



Jarraian, 2017 urtean Garapen Jasangarriaren Helburu bakoitzaren inguruan egindako esku-hartze garrantzitsuenen **LABURPEN EXEKUTIBOA** aurkezten da.

\*Adierazleen bilketaren datazioan askotariko datak agertzen dira, adierazle bakoitzaren betekizun teknikoak eta erakunde estatistikoaren lantze-prozesuak kontuan hartzen dituelako.

# 1. HELBURUA



## Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan

### Agenda Euskadi Basque Country 2030

### 2017. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

6

JARDUERAK

6

PLANGINTZA-TRESNAK

3

PLANGINTZA-TRESNAK

2

EKIMEN LEGEGILEAK

1

EKIMEN LEGEGILEAK

-

#### ADIERAZLEAK

#### DATUAK

• Pobrezia ekonomikoaren indizea (Arope)	(2017) % 9,7
• Pobrezia materialaren indizea (Arope)	(2017) % 3,7
• Lan-intentsitate txikiko familia-unitateak (Arope)	(2017) % 7,7

#### Euskadi Basque Country 2030 Agenda

#### Gobernu Programaren Konpromisoak

**1. Helmuga.** Pobrezia-egoerei erantzutea eta gizarte-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzearen alde eginez eta gizarte-bazterketako egoeren kronifikazioa eragotziz.

126

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finkatu.

**2. Helmuga.** Gizarte-laguntzen erabilera egokia bermatzea, gehien behar dituzten pertsonen eskura iritsi daitezen, instituzioen arteko lankidetzeta eta datuen interkonexioa bultzatuz.

• **1. Jarduera.** Lanbideri 10,3 M €-ko laguntzak ematea laneratze-enpresak sortzeko eta mantentzeko.

• **2. Jarduera.** Lanbideren laguntzen kudeaketa, kontrola eta informazioa hobetzeko neurriak, erantzun azkarragoak lortzeko xedez; tramiteak erraztea, informazioa eta laguntzen kontrola hobetzea, Administrazioen arteko komunikazio estuagoari esker.

**3. Helmuga.** Gizarte-larrialdietarako Laguntzak bermatzea, pobrezia energetikoa barne sartuta.

130

Gizarte-larrialdiko Laguntzak bermatu.

131

Pobrezia energetikoari aurre egin.

• **3. Jarduera.** Gizarte-Larrialdiko Laguntzen Dekretua aldatzea, banaketa hobetzea eta pobrezia forma berriei erantzutea ahalbidetzen duten neurriak ezarri.

**4. Helmuga.** Etxerik gabeko pertsonen arreta eskaintzea.

132

Etxegabeak artatu.

• **4. Jarduera.** Euskadiko bizitegi-bazterketari buruzko III jardunaldiak 2017ko azaroaren 2an, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta 3 hiriburuek antolatuta, erakunde-arteko lankidetzaren baitan bizitegi-bazterkeria egoerak aztertu eta horiei ekiteko.

**5. Helmuga.** Adostasun zabaleko gizarte-itun bat sustatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantziazioa sendotzeko eta haren iraupena bermatzeko.

129

Gizarte-zerbitzuen sistema finkatu eta indartu.

• **5. Jarduera.** 450.000 €-ko laguntzak Hirugarren Sektore Sozialeko jarduerak sustatzeko, esku-hartze sozialerako ezagutzaren kudeaketaren alorrean. Laguntza ematea ikerketa-proiektuak, argitalpenak, prestakuntza-programak eta horien modukoak egiteko.

**6. Helmuga.** Enplegarritasun zaileko pertsonen zuzendutako arreta optimizatzea, gizarte-zerbitzuen eta euskal enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa eta lankidetzaren bitartez.

133

Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatu.

• **6. Jarduera:** 700.000 €-ko laguntzak desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko.

#### Plangintza-tresnak

• **EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019:** bitarteko ebaluazio-txostena, 2016rako aparteko Funtza sortzeko akordioaren 4. puntua betetzeko.

• **Bizitegi-Bazterketa Larria Prebenitzeko eta Murrizteko Euskal Estrategia 2018-2021 (lehen Etxegabeen Euskal Estrategia 2017-2020 deitzen zen):** Egin eta onartu zen 2017ko urriaren 11n.

# 2. HELBURUA



Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2017. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

5

JARDUERAK

5

PLANGINTZA-  
TRESNAK

6

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

-

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Galdutako bizitza-urte potentzialak

(2016) 23,7 urte

• Obesitate-tasa

(2014) % 13,0

• Nekazaritza ekologikoko eremuak

(2017) 4.244 ha

Euskadi Basque Country 2030 Agenda

Gobernu Programaren Konpromisoak

**7. Helmuga.** Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea.

**8. Helmuga.** Azpiegitura eta zerbitzu egokiak ematea landa-eremuei eta kostaldeari, haien bizi-baldintzak hiri-eremuetako baldintzekin parekatzeko eta horko biztanleria mantendu ahal izateko.

**9. Helmuga.** Lehen sektorea gazteagotzea, etorkizuneko berme gisa.

**10. Helmuga.** Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea, nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.

**11. Helmuga.** Nekazaritza ekologikoa eta haren transformazio-industria sustatzea.

26

Euskadiko lehen sektorea garatu.

- **7. Jarduera.** Nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken bidezko laborantza estentsiboaren dibertsifikaziorako nekazaritza eta ingurumeneko diru-laguntzetarako deialdia; Euskadiko Landa-garapenerako 2015-2020 Programan aurreikusia. 1.200.000 €.
- **8. Jarduera.** Ekoizleek nekazaritza sektoreko jardueretarako kapital zirkulatuzailearen finantzaketa lortu ahal izateko laguntzen deialdia (Sendotu Abere Programa). 4.000.000 €.
- **9. Jarduera.** Nekazaritza, arrantza eta elikadurako sektorearen arlo zientifiko, teknologiko eta enpresarialetako ikertzaile eta teknologoaren prestakuntzarako laguntzak, 2018rako. 1.354.000€.
- **10. Jarduera.** Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan (LGP) aurreikusitako laguntzen esparru-araudia onartzea. 3.419.000 €.
- **11. Jarduera.** 2015-2020 aldirako Euskadiko LGP-aren esparruan onartu zen Leader zonako landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak. 1.413.345 €.

Plangintza-tresnak

- **Elikagaien Segurtasunaren Ikerketa koordinatzeko Plana:** 2011-2016ko Planaren Emaitzen Transferentziarako IV. Jardunaldia eta 2017-2020 aldirako Plan berria.
- **Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integrala 2017-2021:** Onartu dira 2017-2020rako IV. Plana, 2013-2016ko III. Planaren behin betiko Txostena, eta Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integralaren 2017ko Urteko Kudeaketa Plana.
- **Nekazaritza Ekologikoaren Plana:** 2017-2020rako Plan Berria eta proiektuen garapena, Neikerrek gidatuta, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren eremuan, profesionalizazio eta lehiakortasun handiagoa lortzeko.
- **Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020:** 2017-2020rako Plana onartzea. Bere asmoa da elikadura eta gastronomiaren balio-kateak BPGan duen pisua oraingo % 10,56tik % 12ra igotzea lau urtean.

# 3. HELBURUA



Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country **2030**

2017. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **10**

JARDUERAK **10**

PLANGINTZA-  
TRESNAK **11**

PLANGINTZA-  
TRESNAK **7**

EKIMEN  
LEGEGILEAK **1**

EKIMEN  
LEGEGILEAK **-**

## ADIERAZLEAK

## DATUAK

• Bizi-itxaropena jaiotze-unean

(2016) 83,5 urte

• Gastu publiko sanitarioa biztanle bakoitzeko

(2017) 1.671 €

• Minbiziaren baheketa-programak barne hartzen duen biztanleriaren % (bularreko, koloneko eta umetoki-lepoko minbizia)

• Bularreko minbizia: (2016) % 79,4  
• Kolon eta ondesteko minbizia: (2016) % 72,4  
• Umetoki-lepoko minbizia: DATUA  
ESKURATU GABE (Programa 2018an hasi zen)

**12. Helmuga.** Osasun sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatzea.

**64**

Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu.

**65**

Itxarote-zerrendak ezarritako ratioen azpitik mantendu.

• **12. Jarduera.** Paziente Kronikoen Telemonitorizaziorako Programak: TelePOC Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa, Bihotzeko Gutxiegitasuna, TeleTAO Tratamendua Ahozko Antikoagulatzaileekin, Pluripatologiak, Taupada-markagailuen eta Desfibriladoreen Jarraipena. 2.991 paziente telemonitorizatuta egon ziren euren etxean.

**13. Helmuga.** Pertsonen erantzunkidetasuna osasunaren zaintzan sustatzea.

**66**

Osasunaren zainketan pertsonen erantzunkidetasuna sustatu.

• **13. Jarduera.** 107 tailer Osasun-Eskolaren baitan. Ekimen honek herritarrak ahalduntzera zuzendutako ekimenak biltzen ditu, bai herritar arruntak eta bai gaixotasun kronikoak eta pertsona zaintzaileak barne sartuta. Honako hauek nabarmentzen dira: "Osasuna zaintzen ijito herrian", "Informazioa Preskribituz, Osasuna Aholkatuz Plana" edo "min kroniko eta akutua maneiatzeko" prestakuntza-programa.

**14. Helmuga.** Ekitatea osasun-arretan bermatzea, garrantzi berezia emanez genero-ikuspegiari, kolektibo kalteberenei eta arretaren kalitateari.

**67**

Ekitatea babestea osasun arretan, arreta berezia jarritz genero-ikuspegia eta giza talde ahulenetan.

• **14. Jarduera.** Laguntzei buruzko Dekretua aldatzea, tratamendu medikoekiko atxikimendua errazteko, beste bi kolektiborengana iristeko: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzen duten pertsonak eta 18.000 €-tik beherako sarrerak dituzten langabeak.

**15. helmuga.** Osasuna ingurune komunitarioan bultzatzea, jarduera fiskoa eta elikadura osungarria sustatuz.

**69**

Osasuna sustatu ingurune komunitarioan.

• **15. Jarduera.** Proiektu berritzailea: "Elikadura Osasungarriko Ekimenak Euskadin", ekimen konkretuekin.

**16. helmuga.** Osasun Publikoa bultzatzea, instituzioen arteko koordinazio eta lankidetzarako formulak ezarri, eta koordinazio soziosanitarioa sustatzea.

**70**

Osasun Publikoa sustatu, eta zaintza-sistema integral bat abian jarri.

**76**

Koordinazio soziosanitarioa bultzatu.

• **16. Jarduera.** Euskadiko Adikzioen Erakundearteko Batzordearen eraketa (Eusko Jaurlaritzak, Udalek eta Aldundiek osatzen dute), Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Planaren txostena, eta Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Legean bildutako erakunde-egitura garatzen duen Dekretuaren zirriborroa.

**17. Helmuga.** Zainketa aringarrien arreta bultzatzea, eta baita gaixotasun kroniko, buru-gaixotasun eta gaixotasun arraroei zuzendutako arreta espezifiko ere.

**80**

Zainketa aringarria bultzatu. Zainketa-aringarrien Plana zabaltu.

**81**

Gaixotasun kronikoei, gaixotasun mentalei eta gaixotasun arraroei berriazko arreta eman.

• **17. Jarduera.** Gaixotasun larriak dituzten haur eta nerabeek eta haien familiek bizitzaren amaieran dituzten behar bereziak aztertze Lantaldearen eraketa, unitate zentral bat sortzeko kasu bakoitza kudeatzen duten taldeekin, tokiko profesionalei euren eginkizunetan lagunduz eta zaintza aringarri pediatrikoen arreta integral eta etengabea eskaintzeko.

**18. Helmuğa.** HIESa eta bestelako gaixotasun infekziosoak prebenitzea.

73

HIESaren eta beste gaixotasun infekzioso batzuen prebentzioa.

• **18. Jarduera.** 84 ikastetxetako 6.100 ikaslek gazteentzako programa espezifikoko batean parte hartu dute, sexu-harremanekin lotuta egon daitezkeen arrisku guztien prebentzioari begira (GIB/Hies, sexu-transmisioko beste infekzio batzuk, eta desiratu gabeko haurdunaldiaren prebentzioa).

**19. Helmuğa.** Adikzioak prebenitzea eta tratatzea, gazteei zuzendutako ekimenak indartzuz.

72

Arreta berezia eman menpekotasun-arazoak dituzten pertsonei.

• **19. Jarduera.** EAEko 18 udalerritako 36 ikastetxetako DBHko ikasturte batzuetako 1.186 ikaslek parte hartu dute adikzioak hezkuntzaren eremuan modu unibertsalean prebenitzeko Iceberg programan.

**20. Helmuğa.** Osasun- eta kirurgia-arreta eskaintza herrialde pobreetatik edo gerran dauden herrialdeetatik datozen adingabeei, baita aldi baterako harrera-egoeran dauden adingabeei ere.

64

Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu.

• **20. Jarduera.** Adingabeen Legea ezarri hornituriko artatzea.

**21. Helmuğa.** Osasunaren alorreko ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea.

89

Osasun-arloko ikerkuntza eta berrikuntza handitzea. Jakintzaren kudeaketa sustatu bai eta osasun-arloko ikerketan parte hartzen duten eragileekiko lankidetzaren ere.

• **21. Jarduera.** Hiru motatako gaixotasun hepatikoen diagnostiko goiztiarra hobetzeko biomarkatzaile ez-inbaditzaileak lortzen dituen nazioarteko azterlana argitaratu da Hepatology aldizkari ospetsuan. Biodonostiak koordinatuta eta AECC finantzatuta, Carlos III Osasun Institutuaren, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta UPV/EHUren sostenguarekin.

### Plangintza-tresnak

• **Osasun Plana 2020:** Planaren Bide Erdia: ezarritako lau helburu eta ekintzatatik hiru txertatu edo hasi dira.

• **Elikadura Osasungarrirako Estrategia:** Osasuna elikaduraren bidez sustatzera zuzendutako jarduera-esparru orokor eta berritzaile honen aurkezpena.

• **Adingabeak eta Alkohola Programa:** Agerraldia Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordearen aurrean, Programaren garapena baloratzeko, eta aurreikusitako 65 ekintza eta azpi-ekintzetako 45 jadanik abian daudela jakinarazteko.

• **Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak 2017-2020:** 2013-2016 aldiko Ildo Estrategikoen Ebaluazioaren aurkezpena eta 2017-2020 aldiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoen onarpena, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren aldetik.

• **Adikzioei buruzko EAEko Plana:** Gobernu Kontseiluak Adikzioei buruzko EAEko VII. Plana onartu zuen 2017-2020 aldirako, 16 helbururekin eta prebentziora, eskaintza eta eskariaren murrizketara eta gizarte-inklusiara zuzendutako 50 ekintzarekin.

• **Osasun arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategia 2020:** 2017ko ekainean, aurreikusitako ekintzen % 56 hasita zegoen, eta planteatutako ia helburu guztiak lantzen ari ziren (% 89,5ek ekintzaren bat du abiatuta).

• **Bide Seguritasunerako eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako Plana 2015-2020:** Trafikoa Zaintzeko eta Kontrolatzeko 2017ko Kanpaina.

# 4. HELBURUA



Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2017. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

8

PLANGINTZA-  
TRESNAK

5

EKIMEN  
LEGEKILEAK

2

EKIMEN  
LEGEKILEAK

-

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Eskola uztearen tasa % 8tik behera

(2017) % 7,0

• Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten  
30 eta 34 urte bitarteko biztanleen %

(2017) % 55,1

• Bizitzan zehar ikaskuntzan parte hartu duten  
helduen %

(2017) % 13,2

**22. Helmuğa.** Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eta hezkuntzarako sarbidearen berdintasuna bermatzen duen kalitatezko eskola inklusibo, bidezko eta berritzailea sustatzea.

92

Eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egin, bikaintasunerantz aurrera egiteko.

• **22. Jarduera.** Berrikuntza- eta prestakuntza proiektuak, hezkuntza zientifiko eta teknologikorako eta ekintzailtzarako, 117 ikastetxe publikotan, haur, lehen eta bigarren hezkuntzan.

**23. Helmuğa.** Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren maila handiagoak lortzea gure ikastetxeetan.

93

Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren maila handiago lortu gure ikastetxeetan.

• **23. Jarduera.** BIZIKASI eskola-jazarpenaren aurkako eta bizikidetzaren positiboaren aldeko ekimen integrala. 2017-2018 ikasturtean 1.000 irakaslek baino gehiagok parte hartu dute.

**24. Helmuğa.** Eleaniztasuna eskolan bultzatzea.

91

Eleaniztasuna bultzatu eskolan.

• **24. Jarduera.** ELEANIZTASUNERANTZ deialdia Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoetan, hizkuntza-proiektu eleaniztetzarako, eta atzerriko hizkuntzari buruzko prestakuntzarako, Berritzeguneen aholkularitzarekin, irakasleentzako Hizkuntza-prestakuntza eta Metodologia Plan bat sustatuz.

**25. Helmuğa.** Hezkuntza-azpiegiturak eraikitzea eta egokitzea.

96

Hezkuntza-azpiegiturak sortu, berri eta egokitu.

• **25. Jarduera.** Hezkuntza-azpiegituren Planean jasotako obren % 83 gauzatu da edo tramitatzeko bidean dago; plan malgu bat, une bakoitzeko beharretara egokitua.

**26. Helmuğa.** Modernizazio teknologikoa irakaskuntzan bultzatzea.

97

Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatu.

• **26. Jarduera.** 369 ikastetxek parte hartu dute IKT Heldutasun ziurtagiriak lortzeko deialdian; ziurtagiriak EAEko unibertsitatez besteko hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetara zuzentzen dira.

**27. Helmuğa.** Bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko hezkuntza sustatzea (indarkeriarik eza, dibertsitatea eta elkartasuna).

166

Bake- eta bizikidetzaren kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

• **27. Jarduera.** Elkarrekin Bonu Programaren deialdia, hezkuntzaren eta gizarte-partaidetzaren alorretan, irabazi-asmorik gabeko erakundearen eta ikastetxeen arteko proiektu bateratuak diruz laguntzeko, bizikidetzaren eta giza eskubideen errespetuaren kultura sustatzeko xedez.

**28. Helmuğa.** Enpresen beharrei eta pertsonen enplegarritasunei erantzuten dien bikaintasuneko lanbide-heziketa finkatzea, laugarren iraultza industrialaren erronkak bereziki kontuan hartuta.

100

Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu.

102

Euskarazko prestakuntza-zikloak ezartzen aurrera egin eta Lanbide Heziketan eleaniztasuna bultzatzen jarraitu.

• **28. Jarduera.** LHko Euskalduntze Plana datozen lau urteetarako, helburu honekin: 2020-2021 ikasturtean, LHko Ikastetxe publikoen eskaintzaren % 50 B eta/edo D ereduakoa izatea. Hirueletasunaren eskaintza 16 taldetara zabaltzea.

### Plangintza-tresnak

• **Hezkuntza-sisteman Hezkidetzaren eta Genero-indarkeriaren Prebentzioa lantzeko Gida Plana 2017-2020:** Lantaldea eratzea I. Plana ebaluatzeko eta II. Plana prestatzeko.

• **Ikasle etorkinen arretarako plana, Eskola Inklusibo eta Kulturartekoaren barruan:** II. Plana abian jartzea eta haren jarraipenerako batzorde teknikoa eratzea.

• **Unibertsitate Plana:** 2015-2018 aldiko Unibertsitate Planaren bitarteko ebaluazioa, 2019-2022rako Euskal Unibertsitate Plana landu eta mugarrak definitu baino lehen.

• **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategia (H)ABIAN 2030:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin kolaboratzeko Estrategiaren aurkezpena.

• **Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria 2017-2020:** Programaren aurkezpena.



# 5. HELBURUA



Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea

Agenda Euskadi Basque Country **2030**

2017. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-TRESNAK

3

PLANGINTZA-TRESNAK

3

EKIMEN LEGEGILEAK

1

EKIMEN LEGEGILEAK

-

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Genero-berdintasunaren indizea

(2015) 69,3

• Batez besteko soldata. (genero-desberdintasuna soldatagatik)

Emakumeak: (2016) 23.428 €  
Gizonak: (2016) 31.001 €

• Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko gizonen eta emakumeen % (genero-desberdintasuna prestakuntza mailan)

Emakumeak: (2017) % 62,9  
Gizonak: (2017) % 47,2

Euskadi Basque Country 2030 Agenda

Gobernu Programaren Konpromisoak

29. **Helmuga.** Balioen aldaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.

145

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, garapen jasagarria lortzeko funtsezko zutabea den aldetik.

• **29. Jarduera.** 2015-2017 aldian, 3.000 ikaslek parte hartu dute Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatzen duen Nahiko - Berdintasunerako, errespeturako eta biolentzia-ezarako Hezkidetza programan, berdintasunezko bizikidetzara zuzendutako balioen hezkuntzarako.

30. **Helmuga.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lanaren eremuan bultzatzea, soldata-diskriminazioaren aurka borrokatuz eta bizitza pertsonala, familiako eta lanekoa uztartzearen alde eginez.

146

Lan-eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu.

• **30. Jarduera.** Sexu-jazarpenaren eta sexuak eragindako jazarpenaren aurkako protokoloa, laneko arriskuak prebenitzeko politikaren baitan; protokolo honek jarduteko prozedura bat arautzen du, aurkezten diren keak eta/edo salaketak konpontzeko.

31. **Helmuga.** Gurasotasun positiboa eta erantzunkidetasuna sustatzea.

139

Familien eta haurren aldeko ituna.

• **31. Jarduera.** Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko tresna (BALORA) eguneratzeko dekretua.

32. **Helmuga.** Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea eta genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetzea. NBERen Populazioen Funtzari laguntzea, Indarkeria pairatzen duten Emakume eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuen Programa Bateratuan parte hartzeko (UNFPA-NBE).

147

Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazi.

157

Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetu.

• **32. Jarduera.** Emakumearen gaineko Indarkeriaren arloko Epaitegietako Kudeaketa, Tramitazio eta Laguntza Kidegoetan lan egiten duen pertsonalarentzako ikastaroak, Justizia Administrazioaren Zuzendaritzak egindakoak.

a. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren oinarriko kontzeptuak. Martxoak. 27 ikasle.

b. Emakumearen gaineko indarkeria. Maiatza-ekaina. 115 ikasle.

Plangintza-tresnak

• **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana:** EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2014-210ko IV. Plana bukatu da.

• **Adingabekoen aurkako genero-indarkeria prebenitzeko, haren kontra babesteko eta genero-indarkeriaren biktima adingabeko horiei eragindako kaltea konpontzeko Plan Integrala:** Erakunde arteko Talde Teknikoaren hiru saio monografiko egin dira, eta bi unitate didaktiko gehiago txertatu dira JABETUZ ikastaro aurreratuan.

• **Familia eta Haurtzaroaren aldeko euskal ituna:** Familia eta haurtzaroaren aldeko euskal itunaren eraketa, hortik abiatuta hedatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei eta Haurrei laguntzeko IV. Erakunde arteko Plana.



## Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasagarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea

Agenda Euskadi Basque Country **2030**

2017. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **3**

JARDUERAK **3**

PLANGINTZA-TRESNAK **2**

PLANGINTZA-TRESNAK **2**

EKIMEN LEGEGILEAK **-**

EKIMEN LEGEGILEAK **-**

### ADIERAZLEAK

• Ibaietako uraren kalitatea

(2017) ONA. % 57,5\*

• Osoko ur-hornidura

(2017) % 100

• Uraren kostu unitarioa

(2014) 1,75 €/m<sup>3</sup>

\*Neurketa-unitatea: Aztertutako ibaietako ur-masa guztien gaineko ehunekoa.

**33. Helmuga.** Urari buruzko politika egoki bat bultzatzea, haren kalitatea bermatzeko eta alferrikako galeraren, espekulazioaren eta kutsaduraren aurka borrokatzeko.

**34. Helmuga.** Uraren hornidura, saneamendu eta arazketarako azpiegitura hidraulikoak garatzea eta gauzatzea, indarrean dagoen plangintzaren arabera. Uraren kanonaren bidez biltzen den diruaren % 5 hornidura eta saneamendurako lankidetzaren proiektuetara zuzentzea, garapen bidean dauden herrialdeetan.

**35. Helmuga.** 2015-2021 aldirako Plan Hidrologikoa berraztertzea.

**46** Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

• **33. Jarduera.** Ur-bolumenak kontrolatzeko sistemen erregulazioa, Euskadiko barne-arroetako jabari publiko hidraulikoko aprobetxamenduei dagokienez.

• **34. Jarduera.** Arroen ingurumen- eta hidraulika-hobekuntzarako lanak, 58 Udalekin sinatutako hitzarmenen bitartez, ibaietako arroak garbi mantentzera zuzendutako erakunde arteko lankidetzaren ezartzea.

• **35. Jarduera.** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Ekoetxeak sarea indartzea (funtsezkoa da Ingurumen Hezkuntzarako), Urdaibai, Txingudi eta Peñas Negraseko instalazioak hobetuz, eta Hitzarmen berri bat Azpeitiko Udalarekin, Azpeitiko Etxoetxearen konpromisoa berritzeko.

### Plangintza-tresnak

• **Plan Hidrologikoa 2021:** Euskadiko Barne Arroetako Lehortearen Plan Berezia egitea eta Plan Hidrologikoaren berrikuspenaren kontratazioa (1. fasea).

• **Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana:** Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren berrikuspena.

# 7. HELBURUA



Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat

## Agenda Euskadi Basque Country 2030

HELMUGAK

4

PLANGINTZA-TRESNAK

1

EKIMEN LEGEGILEAK

2

## 2017. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-TRESNAK

1

EKIMEN LEGEGILEAK

1

### ADIERAZLEAK

• Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumo gordinean

(2016) % 14,3

• Intentsitate energetikoa (barne hartzen du kontsumoaren intentsitatea/BPG – azken intentsitate energetikoa-)

(2016) 71 tep/M€

• Faktura energetikoa: kontsumitutako energiaren urteko kostua

(2017) 5.463 M€ korrante

**36. Helmuga.** Gasaren alde egitea, trantsizio-energia gisa, energia berriztagarriak neurri handiagoan implementatzeko bidean; eta nazioarteko konexio energetikoa sostengatzea gas eta elektrizitatearen horniduran.

**37. Helmuga.** Teknologiaren eta enpresen garapena sostengatzea energia-iturri berriztagarri eta jasagarrien erabilera sustatzeko.

**38. Helmuga.** Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko proiektuak bultzatzea.

**39. Helmuga.** Gasolioa garraiotik gero eta neurri handiagoan ezabatzea, garraioaren gasifikazioa (lehorrekua eta itsasokoa) eta ibilgailu elektrikoaren erabilera bultzatuz.

19

Energia-politika lehiakorra eta jasagarria.

• **36. Jarduera.** Airetik-lurpetik-itsas azpitik doan linea elektriko berri bat eraikitzea eta abian jarri da; 400 km inguruko luzera du eta Gatikako (Bizkaia) eta Cubnezaisko (Akitania) azpiestazioak lotzen ditu, bi herrialdeen arteko energia trukea handitzeko: 2.000 MW gehiago.

• **37. Jarduera.** Berme Funtza, Finantzen Euskal Erakundearekin eta Finantza-Erakunde eta Elkar Bermatzeko Sozietate batzuekin sinatutako Lankidetzak Hitzarmen baten esparruan, InnoBermea programarako: Inbertsio-proiektuak, ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak egiteko alor hauetan: efizientzia energetikoko neurriak eta energia garbiak, industria sektoreko eta berari lotutako zerbitzuetako enpresen inbertsio zientifiko-teknologikoak, eta Zentro Teknologikoak, Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZak) eta ZTBKari atxikitako I+G enpresa-unitateak, maileguren bitartez.

• **38. Jarduera.** EEEn 1.200.000 €-ko laguntzak teknologia energetiko berriztagarri berriak 2017an frogatzeko eta balidatzeko.

• **39. Jarduera.** EEEn RKARGA Programa, zeinaren bidez doako birkargak ematen baitzaizkie kolektibo batzuei ibilgailu elektrikoak birkargatzeko gune publikoetan.

### Plangintza-tresnak

• **Euskadiko Energia Estrategia 2030:** Gobernu Kontseiluak eskatu du EAEko sektore publikora zuzendutako energia elektriko, gas natural, PGL eta erregai likidoen hornidura erosketa zentralizatuko ondasun kontsideratu daitezela.

### Ekimen Legegileak

• **Administrazioen Jasagarritasun Energetikoari buruzko Lege Proiektua:** Gobernu Kontseiluan onartua.

# 8. HELBURUA



Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea

## Agenda Euskadi Basque Country 2030

## 2017. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

HELMUGAK	7
PLANGINTZA-TRESNAK	4
EKIMEN LEGEGILEAK	3

JARDUERAK	7
PLANGINTZA-TRESNAK	3
EKIMEN LEGEGILEAK	2

ADIERAZLEAK	DATUAK
• Per capita BPG	(2017) 33.088 €
• Langabezia-tasa	(2017) % 11,2
• Batez besteko soldata	(2016) 27.481 €

## Euskadi Basque Country 2030 Agenda

## Gobernu Programaren Konpromisoak

40. **Helmuğa.** Kalitatezko enplegu inklusiboa sustatzea.

2

Enpleguaren 2017-2020 Plan Estrategikoa onartu.

• **40. Jarduera.** HABEren eta Lanbideren arteko akordioa, langabeek euskara ikasi eta euren enplegagarritasuna hobetu dezaten.

41. **Helmuğa.** Lanerako kualifikazio eta birziklapena bultzatzea, enpresekin, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin lankidetzan estuan arituz, prestakuntza duala eta enpresa eta erakundetako praktikak bultzatuz.

4

Prestakuntza eta birziklatze profesionala hobetu.

• **41. Jarduera.** Lehenetsunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak; eta Lanbidek Hezkuntza Sailari egindako eskaria, Profesionaltasun Ziurtagiriak Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan lortzeko.

42. **Helmuğa.** Gazteen laneratzea bultzatzea eta ekintzailtzaren alde egitea.

5

Gazteen laneratzea sustatu.

15

Ekintzailtzari lagundu.

• **42. Jarduera.** Esparru-akordioa Eusko Jaurlaritzaren, Euskadiko hiru Unibertsitateen, IKASLAN Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen elkarrearen eta gizarte-ekimeneko Lanbide Heziketako ikastetxe pribatu-itunduen HETEL elkarrearekin, "Hezkuntza Esparrutik Lan-arlorara Igarotzea" eta "Gazte Ekintzailtza" programak bultzatzeko; helburua da urtero 1.500 ikasle gazte edo titulatu lan-arloan sartu ahal izatea aurreneko aldiz, 150 proiektu ekintzaile sortzen laguntzeaz batera.

43. **Helmuğa.** Gizarte-elkarrizketa eta langileen parte-hartzea euren enpresetan sustatzea, eta langile autonomoen arteko elkarlana ere bai.

6

Elkarrizketa soziala eta parte-hartzea sustatu.

• **43. Jarduera.** Gizarte Elkarrizketako Mahaiaren bilera eta Gizarte Elkarrizketaren Organo Iraunkorraren oinarrizko ildoan aurkezpena, erakunde sindikal eta enpresariaren arteko interlokuziorako esparru egonkor gisa; halaber, "Basque Industry 4.0" Industrializazio Plana, Enplegu Planaren aurrerapena eta Lanbide Heziketaren Lege Proiektua.

44. **Helmuğa.** Enpresen Gizarte-erantzukizuna sustatzea.

7

Enpresen gizarte-erantzukizuna sustatu.

• **44. Jarduera.** Enpresaren gizarte-erantzukizunaren erakunde arteko euskal foroa, enpresen gizarte-erantzukizuna ezartzeko euskal eredu baten diseinura zuzendutako erakunde arteko koordinazioa garatzeko.

**45. Helmuga.** Gizarte-ekonomiako enpresak bultzatzea.

**8**

Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua.

• **45. Jarduera.** 680.000 €-ko laguntzak EAEko gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeen elkartze-egiturak finkatzeko:

- Langile Autonomoen sektore arteko erakundeak.
- Lan Elkartua eta Lan Sozietateak.
- Kooperatiben Konfederazioak eta beste Federazio batzuk.
- Ekonomia Solidarioa eta Enplegu Zentro Bereziak.

**46. Helmuga.** Laneko osasuna, segurtasuna eta berdintasuna bultzatzea.

**10**

Osasuna, segurtasuna eta berdintasuna sustatu lanean.

• **46. Jarduera.** Administrazioen eta erakunde publikoen arteko jarduera bateratu eta koordinatuak laneko istripuengatik, lanean sortutako gaixotasunengatik edo gaixotasun kronikoengatik gaitasun murriztuak dituzten pertsonak lanean berriz integratzeko, errehabilitatzeko eta birkualifikatzeko, eta laneko arriskuen prebentzioaren alorra gidatzeko eta bertara balioa ekartzeko.

#### Plangintza-tresnak

- **Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa:** "Euskadi 2020" Esparru Programa onartu zen Gobernu Kontseiluan, bi jarduera-ardatz nagusirekin: enplegua eta ekonomiaren susperraldia.
- **Enplegu Plan Estrategikoa 2017-2020:** Gobernu Kontseiluaren oniritzia.
- **Erakunde arteko Ekintzailatza Plana 2020:** Gobernu Kontseiluan tramitatua eta Eusko Legebiltzarrera bidalia.

#### Ekimen Legegileak

- **Euskal Enplegu Publikoaren Lege Proiektua:** Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren aurretiko onarpena.
- **Kooperatiben Lege Proiektua:** Proiektuaren hasiera eta inplikaturako eragileek egindako proposamenen azterketa.

# 9. HELBURUA



Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2017. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

#### ADIERAZLEAK

#### DATUAK

• BPG industrialia

(2017) % 24,3

• I+Grako Gastua / BPG

(2017) % 1,85

• Pertsonen mugikortasuna lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetan

(2016) 251.906 pertsona

**47. Helmuga.** Garraio jasangarri multimodala sustatzea, arreta berezia zuzenduz trenbide-garraioari (abiadura handikoa, aldirikoa eta tranbia) eta plataforma logistikoei.

37

Euskadi, korapilo logistikoa.  
Euskal Y amaitu.

38

Trenbideko garraioa hobetu.

• **47. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzaren eta Sustapen Ministerioaren arteko akordioa, AHTa euskal hiriburuera iristeko irtenbideak garatzeko, eta baita abiadura handiko geltoki berrien proiektuak ere garatzeko.

**48. Helmuga.** Berrikuntzaren, fabrikazio adimenduna gidatzearen eta zerbitzu aurreratuak industrian txertatzearen alde egitea.

12

“Basque Industry 4.0” Euskal Industriaren aldeko Plan integrala.

• **48. Jarduera.** Apattaerrika (Tolosaldea) industrialdearen etorkizuneko zabalkuntza tramitatzea, 154.298 m<sup>2</sup>-ko jarduera-eremu batean, enpresen eskura 64.849 m<sup>2</sup>-ko lursail industrial berriak jartzeko.

**49. Helmuga.** ETEak eta zailtasunak dituzten enpresen birmoldaketa sostengatzea.

13

ETEEi lagundu eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratu.

• **49. Jarduera.** “Luzaro” (Establecimiento Financiero de Crédito, S.A.) enpresari 50 M €-ko abala ematea bere jarduera arruntari aurre egin diezaion, hau da, ETEei maileguak ematea, finantza-sektoreak eskaini ohi dituen bidez gain beste finantziario-bide batzuk eskainiz haien inbertsio-proiektuetarako.

**50. Helmuga.** Proiektu industrial estrategikoak sustatzea.

14

Proiektu industrial estrategikoak garatu.

• **50. Jarduera.** 2.400.000 €-ko laguntzak EAEko kluster elkarteak sostengatzeko.

**51. Helmuga.** Ikerkuntza, berrikuntza eta teknologiaren alde egitea, arreta berezia zuzenduz fabrikazio aurreratuari, energiari eta bio-zientzia-osasunari.

16

Ikerkuntza, Berrikuntza eta Teknologiaren aldeko apustua.

• **51. Jarduera.** Kontrastea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile zientifiko eta teknologikoekin eta EAEko enprekin, doktorego industrialak garatzeko ekimen berri baten diseinurako eta sektore industrialaren lehiakortasunarentzat funtsezkoak diren arloetan ezagutza aurreratu eta pertsona trebatuak izateko beharrari erantzuteko (lehenetasun estrategikoak RIS3-ZTBP2020).

**52. Helmuga.** Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratuak garatzea.

17

Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratuak garatu.

• **52. Jarduera.** Innobideak-Kudeabide programaren laguntzak, 2.105.000 €-koak, enpresa-kudeaketa aurreraturako, enpresa-dibertsifikaziorako eta enpresen alorrean aritzen diren pertsonentzat.

**53. Helmuga.** Informazioaren eta ezagutzaren gizartea sustatzea, teknologien aukerak aprobetxatzeko lehiakortasuna –zibersegurtasuna barne sartuta-, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko.

18

Euskadi Europako erreferente bihurtu EIKTak aplikatzen, industriaren esparruan.

• **53. Jarduera.** 9 zeharkako ekimen estrategiko, euskal ehun industrialia 4.0 industria bihurtzeko ahalmena dutenak. Horien artean: fabrikazio aurreratuak aktiboaren sare konektatua (Basque digital Innovation hub); trebakuntza adimenduneko sarea; eta Basque open industry platform; offshore ekimen estrategikoa, fabrikazio aurreratuaren eta energiaren arteko lankidetzak-ekimen gisa, eta talentuaren sorreran zuzeneko eragina duten ekimenak (STEAM estrategia: Science, Technology, Engineering; Arts, Mathematics).

### Plangintza-tresnak

• **Euskadiko Agenda Digitala 2020:** Agendaren garapenaren koordinazio eta jarraipena egin da, eta Irekian bertsio eguneratua argitaratu da.

### Ekimen Legegileak

• **Euskadiko Portuen Lege Proiektua:** Lege Proiektua Eusko Legebiltzarrera bidali da.

# 10. HELBURUA



Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2017. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

6

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Desgaitasuna duten pertsonen enplegu-tasa

(2015) % 33,2

• Biztanleria immigrantearen enplegu-tasa

(2016) % 52,63

• Gini indizea

(2015) 25,8

Euskadi Basque Country 2030 Agenda

Gobernu Programaren Konpromisoak

54. **Helmuga.** Zahartze aktiboa eta belaunaldiarteko elkartasuna bultzatzea.

135

Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna.

• **54. Jarduera.** OMEK Enplegu eta Gizarte Politika sailaren "Ondarea" programa aukeratu du. Programa horrek adineko pertsona batzuen lana jasotzen du, eta "edadismoaren" edo adinak eragindako diskriminazioaren aurkako nazioarteko bederatzi jardunbide egoki onenetako bat dela kontsideratu du OMEK.

55. **Helmuga.** Pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoa optimizatzea, osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lotura estua sendotuz.

134

Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzaren estua finkatu.

• **55. Jarduera.** Arreta Soziosanitarioaren 2017-2020ko Lehentasun Estrategikoen onarpena, koordinazioen, baliabideen eta arretaren egituratze soziosanitariorako, prebentzio soziosanitariorako eta herritarren parte-hartzerako, ebaluazio eta berrikuntza soziosanitarioetarako eta 5 lehentasuneko kolektibo ezartzeko: desgaitasuna edo mendetasuna duten pertsonak, buru-nahasmendu larria duten pertsonak, bazterketa eta babesgabetasun arriskuan dauden pertsonak, behar bereziak dituzten pertsonak, eta behar soziosanitarioak dituzten beste kolektibo batzuk (gaixotasun arraroak, bizitzaren amaiera, eta abar.).

56. **Helmuga.** Hirugarren Sektore Soziala sostengatzea.

138

Hirugarren Sektore Soziala babestu.

• **56. Jarduera.** Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legearen arau-eraberritzea, Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko Estrategia egitea, Hirugarren Sektore Sozialerako erakundearen Zentsua sortzea, eta Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia itxuratzeko aurrerapenak. Elkarrizketa Zibilarren Mahaia finkatzea eta Sareen Sarearekin lotzea (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareak biltzen dituen elkarteak).

57. **Helmuga.** Boluntarioen lana bultzatzea.

137

Boluntarioen lana bultzatu.

• **57. Jarduera.** BHERRIA proposamena, 2017-2020ko Boluntariotzaren Euskal Estrategiaren baitan, ikaskuntzarako eta topaketarako espazio gisa, eta parte-hartzeari eta boluntariotzari lotutako balioak Tokiko Administrazioaren eta herritarren artean indartzen dituzten harremanen formula eta proiektu berriak bilatzeko espazio gisa, haien ingurunea hobetzeko xedez.

58. **Helmuga.** Immigrazioaren aldeko eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako Gizarte Ituna bultzatzea.

140

Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka.

• **58. Jarduera.** Immigrazioarako Euskal Estrategiaren ebaluazioa, Jarduera Plan bat lantzeko euskal gizartearen kultura arteko bizikidetzaren alorrean, 2018/2020 aldirako. 50 elkarrizketa baino gehiago egin dira, ahalik eta parte-hartzerik handiena bilatuz.

**59. Helmuğa.** Dibertsitate eta elkartasunaren kudeaketa positiboa, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean sortzen diren erronka berrien aurrean (immigrazioa, pertsona errefuxiatuak, erlijio-aniztasuna...).

165

Aniztasuna eta elkartasuna positiboki kudeatu, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sortzen diren erronken aurrean.

• **59. Jarduera.** Ekitaldia eta adierazpen instituzionala, Lehendakaritzan, Europak pertsona errefuxiatuekin bizi duen krisi larriaren aurrean. Euskal instituzioen eta gizarte zibilaren konpromisoa, pertsona errefuxiatuen harreraren modu aktiboan kolaboratzeko eta, euren eskumen eta ahalbideen neurrian, beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak jartzeko.

**60. Helmuğa.** Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta.

166

Bake- eta bizikidetzakultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

• **60. Jarduera.** "Euskadin izandako terrorismoaren eta giza eskubideen urratzearen inguruan unibertitateko herritarrek dituzten ezagutza-mailari eta diskurtsoak" izeneko txostena, Deustuko Unibertitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak eginda, Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren eskariz.

### Plangintza-tresnak

- **Boluntariotzaren Euskal Estrategia 2017-2020:** Boluntariotzaren Euskal Topaketa eta Estrategia berriaren definizioa. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren oniritzia eta Gobernu Batzordeak horren informazioa jasotzea.
- **Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programa:** 2017ko Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa Ebaluatzeko Jardunaldian, haren 25. urtemugarekin batera.
- **Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategia 2017-2020:** Estrategiaren onarpena Euskadiko Elkarrizketa Zibilaren Mahaiaren aldetik.
- **Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia 2015-2020:** Estrategiaren ekintzak garatzea eta adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak Prebenitu eta Hautemateko Prozeduraren inplementaziora hedatzea.
- **Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Plana 2020:** euskal unibertitateen eta Eusko Jaurlaritzaren artean konpartitutako konpromiso-akordioa. Nazio Batuen Giza Eskubideen Goi Komisionatuaren Plan eta babes-mekanismoen dokumentuak trukatzeko.
- **Esparru Dokumentua, errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun soziala, politikoa, erakundeen artekoa eta sailen artekoa orientatzeko:** Dokumentuaren azken bertsioa argitaratzea.

### Ekimen Legegileak

- **Kultuzko Zentroen Lege Proiektua:** Lege Proiektua lantzen hastea.

# 11. HELBURUA



Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2017. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

8

PLANGINTZA-  
TRESNAK

5

EKIMEN  
LEGEGILEAK

2

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

### ADIERAZLEAK

### DATUAK

• Kriminalitate-tasa (lege-hauste penalak 1.000 biztanleko)

(2016) % 38

• Hirietako PM 10 kontzentrazioa

(2016) 15,9 PM10 µg/m<sup>3</sup>

• Hiri-hondakinen birziklapen-tasa

(2015) 161 kg/pertsona



**61. Helmuğa.** Lurralde-estrategia jasangarri, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailea sustatzea.

47

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia.

• **61. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Politikako Aholku Batzordearen txostena, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei (LAG) buruzkoa. Hiru jardunaldi, eragile sozial, profesional, enpresarial eta sektorialekin parte hartzeko tailerrek, LAGen edukia sakontzeko; eta informazio publikorako eta Administrazio, erakunde eta partikularren iradokizunak jasotzeko epearen hasiera.

**62. Helmuğa.** PHiriko zaharberritze, biziberritze eta berriztapena sustatzea.

48

Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea.

• **62. Jarduera.** 200.000 €-ko laguntzak hirigintza inklusiborako, genero-ikuspegia udal antolamendu eta hirigintzan txertatzeko, gizonen eta emakumeen lurraldeko baliabide eta ekipamenduetara baldintza berdinetan iritsi daitezkeela bermatzeko, eta emakumeen segurtasuna esparru publikoetan hobetzeko. Alor honetako lehenengo proiektu pilotuen plangintza, ZTBParent "Hiri Habitata" aukera-nitxoaren bitartez, RIS3ren strategiaren baitan.

**63. Helmuğa.** Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea.

142

Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatu.

• **63. Jarduera.** Etxebizitza bat legez okupatzeko edo etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubide subjektiboa arautzen duen Dekretuaren alde aurretiko onarpena.

**64. Helmuğa.** Garraio publiko jasangarri eta intermodala bultzatzea.

33

Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatu.

• **64. Jarduera.** 40.000 €-ko laguntzak Kalitate eta Ingurumen Sistemak Garraio-enpresetan ezartzeko.

**65. Helmuğa.** Kultura eta kultura-ondarea dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bat bultzatzea.

108

Kultura dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia sustatu, 2020. urteari begira.

113

Ondare kulturala babesteko politikak gehiago zabaltzea, bai eta haien eragin soziala ere.

• **65. Jarduera.** Definizio berri baten deialdia kultura bistaratzeko proiektu berritzaileetarako eta publiko berriak sortu eta erakartzeko.

**66. Helmuğa.** Euskararen erabilera sustatzea.

116

Euskararen gizarte-hazkundera finkatu, euskal hiztunen kopurua handituz eta haien hizkuntza-gaitasuna hobetuz.

117

Aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzioetan zabaltzea euskararen erabilpena.

• **66. Jarduera.** Euskararen ikaskuntza eta erabilera:

. Nazioarteko eremu akademikoan, Etxepare Euskal Institutuaren bitartez, 35 nazioarteko unibertsitatekin baino gehiagorekin lankidetzan arituz, beraren irakurletza eta euskal jarduera kulturalen programaren bitartez.

. Euskal Etxeetan, HABEren bitartez, "Euskara Munduan" Programak euskara klaseetarako eta jardueretarako ematen dituen laguntzen urteko deialdien bidez.

**67. Helmuğa.** Larrialdien aurreko prebentzio- eta alerta-sistema indartzea, baita herritarren autobabesa ere.

153

Larrialdiak prebenitzeko eta ohartarazteko sistema eta herritarren autobabesa indartu.

• **67. Jarduera.** Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetarako Erakunde arteko Batzordea sortzeko dekretua.

### Plangintza-tresnak

• **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 2040:** EUSKAL HIRIA 2017 Batzarra. Gidalerroen Berrazterketari buruzko erakusketa eta ildo estrategikoen aurkezpena Nafarroa, Akitania, Errioxa, Kantabria eta Gaztela eta Leongo ordezkarien aurrean.

• **Etxebizitzaren Gida Plana 2018-2020:** Eusko Legebiltzarreko Batzordean aurkeztu da. Ildo estrategikoen ardatza alokairuaren, eraikinen birgaitzearen eta hiri-berroneratzearen aldeko apustua da.

• **Jasangarritasunerako Udalerrien Sarearen 2020rako Plan Estrategikoa:** Udalsarea 21: Berringurumena programaren 8. Edizioa, Udalsarea 21 - Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen aldetik.

• **Garraio Jasangarriaren Gida Plana:** Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2020rako Gida Planaren onarpena.

• **Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020:** Agendaren onarpena.

### Ekimen Legegileak

• **Euskal Kultur Ondarearen Lege Proiektua:** Gobernu Kontseiluak onartu du kultur ondasun immaterialen babesean aurrera egiten duen Lege aurreproiektu hau.

# 12. HELBURUA



Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

Agenda Euskadi Basque Country **2030**

2017. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-TRESNAK

4

PLANGINTZA-TRESNAK

2

EKIMEN LEGEGILEAK

-

EKIMEN LEGEGILEAK

-

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Azken energia-kontsumoa

(2016) 91 (oinarrizko indizea 100=2005)

• Materialen etxeko kontsumoa

(2014) 9,2 tona/biztanle

• Biztanle bakoitzeko sortutako hiri-hondakinen ratioa

(2015) 502 kg/biztanle

Euskadi Basque Country 2030 Agenda

Gobernu Programaren Konpromisoak

68. **Helmuga.** Ekonomia zirkularraren alde egitea.

42

Ekonomia zirkularra bultzatu.

• **68. Jarduera.** Lankidetzeta-hitzarmena Ihoberen eta Orkestra-Lehiakortasunaren Euskal Institutuaren artean, enpresen jasangarritasun eta ekonomia zirkularraren alorrean, euskal enpresen aukerei buruzko azterlan bat egiteko, ekonomia zirkularraren alderdiak lehiakortasun faktore gisa txertatuz.

69. **Helmuga.** Ingurumen aldetik ereduagarria den administrazio publikoaren konfigurazioan aurrera egitea.

45

Politika publikoetan ingurumenaren aldagaia txertatu.

• **69. Jarduera.** Euskadiko 2020rako Ingurumen Esparru Programaren Lehenengo Bi Urtean Behingo Jarraipen Txostena (2014-2016). Programa horretako ekintzen ezarpen maila % 54 da. Gainerako jardueren garapena plangintzan jasotakoaren arabera da, edo aurreikusitakoa baino handiagoa, eta % 9 soilik dago ezarritako epetik urrun.

6 Funtsezko Proiektu gehitu dira, ekintza berritzaile eta kolaboratiboen bitartez emaitza ukigarriak lortzeko garrantzi estrategikoko eremuetan, hala nola: osasuna, industriako baliabideen erabileraren efizientzia, elikadura zirkularra edo lurralde-plangintza jasangarria.

70. **Helmuga.** Informazio azkar eta eraginkorra eskaintzea kontsumitzaileak konprometituagoak eta arduratsuagoak izan daitezen

32

Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua.

• **70. Jarduera.** Kontsumo arduratsua sustatzera zuzendutako kanpainak eta komunikazio-ekintzak:

- Etxez etxeko salmentei buruzko informazio-kanpaina, hiru euskal hiriburu-udalen eta Osakidetzaren lankidetzarekin.
- Dibulgazio-kanpaina irratan, kontsumoaren alorreko gomendioak zabalduz.
- Artikulu eta informazioak argitaratzea web, blog eta sare sozialetan.
- Argitalpenak prestatzea (liburuxkak, aldizkariak, eta abar.).

71. **Helmuga.** Turismo jasangarriaren bikaintasuna sustatzea.

28

Bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatu euskal turismo jardueran.

• **71. Jarduera.** Turismo Administrazioaren, udalen eta EUDELen arteko lankidetzeta-protokoloa, erabilera turistikorako etxebizitza eta gelen inguruan administrazioek dituzten jardueren prozedurei buruzkoa.

Plangintza-tresnak

• **Euskadiko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020:** Planaren garapena tresna hauen bitartez: inbentarioak, ingurumen-ziurtapenak, gorabehera eta larrialdien kudeaketa, lantaldeen sorrera edo hondakinekin lotutako lanak.

• **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana 2017-2020:** Turismo, Merkataritza eta Kontsumoaren Gida Plana prestatzea, ukitutako sektoreen lankidetzarekin, eta Irekian eta Euskadi.eus-en argitaratzea.

# 13. HELBURUA



Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko

Agenda Euskadi Basque Country **2030**

2017. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

HELMUGAK	5
PLANGINTZA-TRESNAK	1
EKIMEN LEGEGILEAK	1

JARDUERAK	5
PLANGINTZA-TRESNAK	1
EKIMEN LEGEGILEAK	-

ADIERAZLEAK	DATUAK
• Berotegi-efektuko gasen emisioa % 20 murriztea	(2016) 90,6 (oinarrizko urtea 100=1990)
• CO2 baliokidearen kontsumoa kW/ordu bakoitzeko	(2016) 291 gr CO2/kWh
• Airearen kalitatearen indizea	(2016) % 99,0

**72. Helmuğa.** Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatzea.

**73. Helmuğa.** Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa sustatzea.

**74. Helmuğa.** Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea.

**75. Helmuğa.** Eraikuntza jasangarria, ekodiseinuaren sustapena eta garraio publikoaren erabilera bultzatzea.

**76. Helmuğa.** Klima-aldaketari egokitzeko ikuspegia integratzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onesteko prozesuan eta lurralde- eta hiri-plangintzako tresnetan.

41


Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatu.

- **72. Jarduera.** Euskal Udalerriek Klima Aldaketaren aurrean duten Kalteberatasunaren Azterketa; udalerrri bakoitzerako informazio espezifiko eskaintzen du, gertaera hauen aurrean duten kalteberatasunari buruz: bero-uharteak, uholdeak, itsas mailaren igoera eta nekazaritza sektoreko lehortea.
- **73. Jarduera.** Euskadiko herritarrek energiari eta klima-aldaketari buruz duten pertzepzioaren inguruko lehenengo azterlana.
- **74. Jarduera.** Euskadi #Poreclima komunitatera atxiki da. Klima Ekintzaren Espainiar Plataformak sustatuta, ekimen aurrendari horrek pertsonak, enpresak, erakundeak eta administrazio publikoak biltzen ditu klima-aldaketaren aurkako borrokan.
- **75. Jarduera.** "Energia Jasangarrirako Ekintza Planetarako Datuak Eskuratzeko Gida" argitaratu da, Data4Action europar proiektuaren emaitza gisa; proiektu horretan, Ihebek eta EEEK parte hartzen dute, Udalsarea 21en lankidetzarekin.
- **76. Jarduera.** Basque Ecodesign Meeting- BEM2017 topaketa, Basque Ecodesign Centerrek antolatua. Ekitaldiak enpresetako bostehun profesional inguru bildu ditu, alegia, erabakiak estrategikoak hartzeko ardura duten eta abantaila lehiakorrak lortzeko xedez ekodiseinua eta produktuaren ingurumen-berrikuntza euren erakundeen politiketan sartzeko interesa duten profesionalak.

### Plangintza-tresnak

- **Klima Aldaketaren aurkako Estrategia 2050-Klima 2050:** Estrategiaren erdiko ebaluazioa.

# 14. HELBURUA



Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira

## Agenda Euskadi Basque Country 2030

## 2017. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

HELMUGAK	4
PLANGINTZA-TRESNAK	2
EKIMEN LEGEGILEAK	-

JARDUERAK	4
PLANGINTZA-TRESNAK	1
EKIMEN LEGEGILEAK	-

### ADIERAZLEAK

- Azaleko ur masen kalitatea
- Bainu-eremuetako uraren kalitatea
- Ibaietako uraren kalitatea

### DATUAK

(2017) ONA % 58,4\*

BIKAINA

(2017) ONA % 57,5\*

\*Neurtze-unitatea: Aztertutako ibaietako ur-masa guztien ehunekoa.

**77. Helmuga.** Arrantza jasangarri eta lehiakorra sustatzea.  
**78. Helmuga.** Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea arrantza azpisektorean.

26

Euskadiko lehen sektorea garatu.

• **77. Jarduera.** 18 euskal gazte hegaluzearen arrantzaldian aritu dira, "Itsasoratu" programaren bitartez. Programa horrek itsasoko jardueraren ezagutza bultzatzen du, eta baita euskal ontzidiaren belaunaldi-errebua ere.

• **78. Jarduera.** Atunaren sektorerako ikerketa-estrategiaren garapena, ANABAC eta OPAGAC 2ren lankidetzarekin, AZTIK gidatuta (arrantza arduratsuen jardunbide egokien egiaztapena).

**79. Helmuga.** Lehorretik itsasora doazen isurketen kudeaketa jasangarria.

46

Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

• **79. Jarduera.** Lurretik itsasora doazen isurien kontrola areagotzea eta protokolo zehatzak ezartzea uren isurien edo gainezka egiteen jarraipena egiteko eta horiek kontrolatzeko, estazio araztegietan eta saneamendu sareetan, bainu zonaldeetan batez ere.

**80. Helmuga.** Kostaldea babestea lurzorua erabilerak arautzearen bidez.

47

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia.

• **80. Jarduera.** EAEko hirigintza- eta lurralde-bilakaera erakusten duten lurralde- eta hirigintza-adierazleen argitalpena, UDALPLAN hirigintza-antolamenduan oinarrituta. Horien bitartez erlazionatzen dira eskura dagoen lurzorua, ematen zaion erabilera, erabilera horien intentsitatea eta horrek guztiak zerbitzuen xedetzat hartzen den biztanleriarekin duen lotura eta lurraldean duen inpaktua.

### Plangintza-tresnak

• **Euskadiko Arrantza eta Akuikultura Plana 2020:** Planaren jardueren garapena, arrantza-jardueraren eta arrantzaren mende dauden arrantza-eremuen hazkunde ekonomiko, integratzaile, adimendu eta jasangarrira zuzenduta.

# 15. HELBURUA



Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lehorreko ekosistemak eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria

Agenda Euskadi  
Basque Country **2030**

2017. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **6**

JARDUERAK **6**

PLANGINTZA-TRESNAK **4**

PLANGINTZA-TRESNAK **3**

EKIMEN LEGEGILEAK **1**

EKIMEN LEGEGILEAK **-**

## ADIERAZLEAK

• Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzoruen azalera

## DATUAK

(2016) kutsatutako hektarea guztien % 8

• Zuhaitzez estalitako natura-guneen dentsitatea

(2016) % 67,29 ha

**81. Helmuga.** Lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria sustatzea lurzoruen erabilera arautzearen bidez.

**47**

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia.

• **81. Jarduera.** EAEko hirigintza- eta lurralde-bilakaera erakusten duten lurralde- eta hirigintza-adierazleen argitalpena, UDALPLAN hirigintza-antolamenduan oinarrituta. Horien bitartez erlazionatzen dira eskura dagoen lurzorua, ematen zaion erabilera, erabilera horien intentsitatea eta horrek guztiak zerbitzuen xedetzat hartzen den biztanleriarekin duen lotura eta lurraldean duen inpaktua.

**82. Helmuga.** Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, herritarrek ingurumenaren babes eta kontserbazioan duten erantzunkidetasunean aurrera eginez.

**46**

Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

**83. Helmuga.** Biodibertsitatea babestea.

**84. Helmuga.** Europako gune babestuen Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioen antolamendu-planak garatzea.

• **82. Jarduera.** Herritarren sentsibilizazioa natura-guneen babeserako, TXINBADIA+ mugaz gaindiko proiektuaren bitartez.

• **83. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzaren 2020rako IV. Gazte Planaren zirriborroa erredaktatu da, Ingurumen Hezkuntza jarduera-lerro gisa txertatuz.

• **84. Jarduera.** Gidalerro eta irizpideak prestatu dira habitat eta ekosistemen lehengoratze-eremuan lehentasunak ezartzeko.

**85. Helmuga.** Nekazaritza ekologikoa sustatzea.

**26**

Euskadiko lehen sektorea garatu.

**86. Helmuga.** Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea nekazaritza azpisektorean.

• **85. Jarduera.** "Zientzia eta Berrikuntza Ekoizpen Ekologikoan" ikastaroa, Agurainen, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politika Sailburuordetzak NEIKER-Tecnaliaren laguntzarekin antolatuta.

• **86. Jarduera.** 1.400.000 €-ko laguntzak nekazaritza eta basogintza sektoreen eta arrantza zein akuikulturako produktuen ikerketa, garapen eta berrikuntzarako, eta 1.725.000 €-ko laguntzak nekazaritza, elikadura eta basogintza sektoreetako prozesuak berrizatzeko.

## Plangintza-tresnak

• **Ingurumen Esparru Programa 2020:** Programaren Bi Urtetik Behingo Jarraipen Txostena (2014-2016).

• **Biodibertsitate Estrategia 2030:** Naturan Oinarritutako Irtenbideak deritzanak hiri-ingurunean garatu dira, udalerrien rol aktiboa Udalsarea21en bitartez bultzatuz.

• **Lurzorua Kutsatuak Kudeatzeko eta Lehengoratze Plana:** Lurzoruen kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko Legea garatzen duen Dekretu Proiektua prestatzeko prozedura.

# 16. HELBURUA



Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan

Agenda Euskadi  
Basque Country **2030**

2017. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **10**

JARDUERAK **10**

PLANGINTZA-  
TRESNAK **8**

PLANGINTZA-  
TRESNAK **3**

EKIMEN  
LEGEGILEAK **2**

EKIMEN  
LEGEGILEAK **-**

ADIERAZLEAK	DATUAK
• Herrialdeko Gobernuarekiko konfiantza	(2016) % 74
• Nazioarteko gardentasun-indizea	(2016) 100,0
• Herrialdeko demokraziaren funtzionamenduari buruzko iritzia	(2017) % 59

Euskadi Basque Country 2030 Agenda

Gobernu Programaren Konpromisoak

**87. Helmuga.** Bake eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta.

**166**

Bake- eta bizikidetzakultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

• **87. Jarduera.** Lankidetzakultura-hitzarmena Lankidetzak eta Garapenerako Euskal Agentziaren eta Fondo Centroamericano de Mujeres Fundazioaren artean, Erdialdeko Amerikan giza eskubideen defendatzaileak babestearren eskualde-ikuspegi bat indartzeko proiektu bat finantzatzeko.

**88. Helmuga.** Administrazio Publiko ireki, parte-hartzaile, gardena eta eraginkorra bultzatzea.

**60**

Efizientzia eta berrikuntza oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.

• **88. Jarduera.** Euskal Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoa (NISAE) abiatu da, datuen bitartekotza administrazioen artean ahalbidetzeko, herritarrek administrazio publikoen eskuetan dauden datuak eta agiriak ez aurkezteko duten eskubidea errespetatzeko.

**89. Helmuga.** Kargu publikoen osotasuna segurtatzea.

**57**

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen integritate etikoak ziurtatu.

• **89. Jarduera.** "Kargu publikodunen jokabide-kodea eta interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako betebeharren betetze mailari buruzko txostena" prestatu da eta Eusko Legebiltzarrera bidali da.

**90. Helmuga.** Dibertsitate kulturalak eta arrazakeria zein xenofobiaren prebentzioak dituzten balio positiboak sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea.

**140**

Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka.

• **90. Jarduera.** "Populismoak eta immigrazioaren inguruko jarrerak" izenburuarekin BILTZEN eta IKUSPEGIK antolatutako jardunaldiak.

**91. Helmuga.** Segurtasun- eta polizia-zerbitzu publiko eraginkor eta hurbila sustatzea.

**148**

Segurtasun zerbitzuak eta Ertzaintza herritarrengana gerturatzen jarraitu.

• **91. Jarduera.** Ertzaintzaren bisitak ikasleei eta zenbait bilera kolektibo kalteberekin (gazteak, adineko pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak, ijitoak,...) Prebentzioa Komunikaziotik programaren baitan.

**92. Helmuga.** Sistema judizial moderno, azkar eta eraginkorraren alde egitea, eta adingabeentzako arreta judiziala garatzea.

**155**

Sistema judizial moderno, azkar eta eraginkorra.

**158**

Adingabeentzako arreta judiziala garatu.

• **92. Jarduera.** Lan eta Justizia Sailaren aurrekontua aurkeztu da. Beraren bitartez:

- Hipoteken Bitartekotza Zerbitzura zuzendutako partida bikoizten da.
- 2016an baino % 3,8 gehiago inbertitzen da, batez ere Justiziaren Modernizazioarako, informatizazioaren eta eraikinen eraikuntza eta birgaikuntzaren bitartez.
- Euskara Prozesu Judizialean ezartzera zuzendutako partidak mantentzen dira, dokumentazio juridiko guztian.
- Partida bat bideratzen da Doako Laguntza Juridikora, zerbitzu publiko hau mantentzea ahalbidetzen duten Abokatu eta Prokuradoreen Elkargoei zuzendutako transferentzien bitartez.
- Bi nobedade adingabeen Hezkuntza-zentroetan: plazak gehitzea (15etik 18ra) Txema Fínez Adingabeen Zentroan; eta Bizkian beste adingabeen zentro bat abaian jartzeko zuzkidura.

**93. Helmuğa.** Gatazkak konpontzeko sistema alternatiboak bultzatzea.

159

Gatazkak ebazteko sistema alternatiboak bultzatu.

• **93. Jarduera.** Gatazka judizialak bide alternatibotik ebazteko protokoloa Biktimen Arreta Zerbitzuaren (zerbitzu honek biktimaren aldeko Justizia Konponarazlearen babesle nagusia izan behar du) eta Auzitegi Barruko Bitartekotza zerbitzuaren artean.

**94. Helmuğa.** Indarkeriaren amaiera ordenatua sustatzea, ETaren armagabetze eta desegitea barne sartuta.

161

Indarkeriaren amaiera ordenatua.

• **94. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzaren hitzaldi publikoak, terrorismoak eta indarkeriak sortutako bidegabekeriaren aitortza kritikoaren beharra berriro gogoratu.

**95. Helmuğa.** Biktima guztiei zuzendutako egia-, justizia-, erreparazio- eta elkartasun-politikak ezartzea.

162

Egia-, justizia- eta erreparazio- eta elkartasun-politika publikoak ezarri biktima guztiekin.

• **95. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak Konstituzio Auzitegiaren aurrean defendatu du motibazio politikoko indarkeria testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzko uztailaren 28ko 12/2016 Legearen erabateko legezko tasuna.

**96. Helmuğa.** Laguntza ematea pertsona desagertuen ingurukoe.

160

Desagertutako pertsonen inguruneari lagundu.

• **96. Jarduera.** Kontaktuak Segurtasun Zuzendaritzarekin, zerbitzu hauek emateko zereginak koordinatzeko eta horietan kolaboratzeko, jarduera-protokolo bat lortzeko lanarekin jarraitzeko konpromisoarekin.

### Plangintza-tresnak

- **Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Plana:** 2017-2020rako Plana onartu da Gobernu Kontseiluan.
- **Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa 2020:** Plana onartu da Gobernu Kontseiluan.
- **Herritarren, Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren eremuko Jarduketa Plana:** 2018/2020 aldiko politika, programa eta ekintzen Plana –bide-orria- lantzeko beharrezkoa den informazioa bildu da.

# 17. HELBURUA



Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak sendotzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2017. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

EKIMEN  
LEGEGILEAK

—

EKIMEN  
LEGEGILEAK

—

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Giza Garapenaren Indizea

(2017) 0,922

• Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzen duten gazteak

(2017) 100 gazte

• Garapenerako lankidetzaren laguntzaren % / BPG

ESKURATU GABE\*

\*Euskadin garapenerako lankidetzarako laguntzak suposatzen duen ehunekoa kalkulatzeko ezinezkoa delako birformulatu beharreko adierazlea.

**97. Helmuga.** Basque Country nazioartekotze-estrategia globala garatzea, lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez.

21

Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean.

• **97. Jarduera.** SPRI taldearen Basque Country Lizitzazio Programa, euskal enpresei parte hartzen laguntzeko Garapenerako Banku Interamerikarrak edo Munduko Bankuak garapen bidean dauden herrialdeetan bultzatzen dituzten proiektu aldean lizitazioan. 11 proiektu abiatu dira Argentina, Kolonbia eta Mexikon, sektore hauetan: ura eta saneamendua, garraio garbia, argiztapen adimendua, azpiegiturak eta hiri-garapena.

**98. Helmuga.** Garapenerako lankidetzaren politika sendotzea eta lankidetzarako tresnak estrategia espezifikoaren bidez eguneratzea.

168

Garapenerako lankidetzari buruzko politika finkatu, eta euskal ankidetzaren eredu gaurkotu.

169

Ebaluazio-kultura sustatu, lankidetzari dagokionez.

• **98. Jarduera.** (H)ABIAN 2030 – Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiaren aurkezpena. Estrategia honen helburua da euskal instituzio publikoek, GGKEek eta beste erakunde eta mugimendu batzuek ekimenak aurrera eraman ditzatela giza eskubideetan eta bidezko botere-harremanetan oinarritutako gizarte bat eraikitzeko, tokikoa eta globala lotuz.

**99. Helmuga.** Garapenerako lankidetzaren politika publikoaren koherentzia eta instituzioen arteko koordinazioa bultzatzea.

171

Lankidetzaren politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetzazkoagoa izan.

• **99. Jarduera.** Euskadiko erakunde batzuek (AVCD, URA, AMVISA, Euskal Fondoa eta foru eta udal erakundeak) abian jarri dute El Salvador eta Costa Rica Errepublikekin kolaboratzeko erakunde arteko programa bat identifikatzeko prozesu bat, uraren eta saneamenduaren alorrean.

**100. Helmuga.** Lankidetzaren politika publikoari lotutako ekimen estrategikoak abiatzeko aliantzen garapena bultzatzea estatuan, Europan eta nazioartean.

170

Aliantzen garapena bultzatu estatu, Europa eta nazioarteko mailan, lankidetzaren politika publikoari lotutako ekimen estrategikoak abiatzeko.

• **100. Jarduera.** Europako Batzordeak finantzatutako bi azterlanetan parte hartu da: bata CPRM eta PLATAFORMAK gidatua eta bestea ELGEK gidatua, lankidetzaren deszentralizatuari balioa emateko eta euskal jardunbide egokiak erakusteko.

## Plangintza-tresnak

- **Euskadi Basque Country 2020 Nazioartekotze Estrategia:** Estrategia eguneratu da, Gobernu Programa uztartuz "Europa 2020" europar strategiarekin eta "Agenda 2030" garapen jasangarrirako mundu-estrategiarekin.
- **Garapenerako Lankidetzaren Gida Plana 2018-2021:** 2014-2017ko III. Planaren ebaluazioa.
- **Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua:** Eusko Jaurlaritzak bere egin du, gobernu-jardunaren oinarritzko erreferentzia gisa.
- **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Ekintza Humanitarioko Estrategia 2018-2023:** Estrategia lantzeko prozesu parte-hartzailea abiatu da.



**EUSKADI**  
**BASQUE COUNTRY**

